

“Zenbat eta diru gehiago, orduan eta sormenerako gogo ttipiagoa”

Marie-Agnes Gorostiague | Irratilaria

Hamabost urterekin jabetu omen zen euskara sekulako ondasuna zela. Geroztik Irulegiko Irratia da bere familia, eta ez du familia uzteko batere gogorik.

SUSTRAI COLINA

Argakia: Gaizka Iroz

Irrati libreak hain libreak dira?

Ez gara inoiz aski libreak. Diru-laguntzak eskuratzen ditugu eta kasu eman behar... Baina besteak baino libreagoak garella uste dut. Horrek badu prezio bat, alta.

Ez esan!

Ez gara inoren menpe jarriko subentzio batzuk ukaiteko. Haatik dirua behar dugu, eta diru hori hartu eta baliatzeko eginahalak oro egingen ditugu.

Erdaldunei mikroa ireki ere bai?

Enetako badute tokia. Anitz mikroa zabaltzeko zain dira baina irrati euskalduna gara, eta euskara biziko deno, lehentasuna emanen diogu euskarari.

Horrela helduko zarete erdaldunengana!

Hori zaila da. Zer esan behar diozu jende horri? “Nahi baduzu guregana etorri, euskara ikasi!”? Gure problema handia da. Euskara galtzen ari da, eta pentsatzen ari gara nori mintzatu garen hemendik zenbait urteren buruan.

Ederra marka, euskal irratia frantsesez.

Badakigu zerbait egin beharko dela, irrati baten helburua entzuleak atxikitzea ere badelako. Agian irrati librea izanen da oraino, euskalduna, baina frantsesa sartu behar baldin bada...

France-Inter edo Europe1 ttipi bat izanen zarete.

Niri ez zait interesatzen beste irrati frantses bat bezalakoa izatea eta gauza bera euskaraz

eskaintzea. Beste informazio mota bat eskaini nahi dut. Erran nahi dut euskalduna izatea ez dela akatsa, ez dela besteak baino apalagoa izatea.

Horretarako Euskadi Irratia dago!

Batzuetan hotz-aire mintzatzen dira, iduri du ez direla gutartekoak. Ez zaizkigu biziki hurbiltzen. Aski urrun sentitzen ditut.

Zuek, aldiz, jendearen sukalderraino sartzen zarete... diru eske.

Bai, eta jendeak badaki batzuetan haserre egoten, deitzen, kritikatzten. Hori da gure termometroa eta hor ikusten dugu noraino heltzen garen eta zer heinetaraino entzunak garen.

Politikari batzuek, alta, ez dute zuen sukaldetik pasa nahi.

Batzuk ez dira gehiago gurekin mintzatu nahi. Ukan ditugu oharrak: “Diru-laguntzak eskatzen dituzue gure aurka egiteko!”.

Baina ttipiak handiaren kontura irri egin nahi duenez...

Jendea ase da hildakoak daudela edo erosmen ahala ttipitzen ari dela entzuteaz. Umoreak badu tokia. Jendea aiostu behar da, bestela zer?

Ai, ai, ai, ageri da irrati ttipi batean ari zarela.

Zenbat eta diru gehiago izan, orduan eta ttipiagoa da sormenerako gogoia. Errazkerietara lerratzen da jendea. ■